

Nazioarteko ekonomiaren hazkundera indartu egin da 2006an, %5,4era heldu den arte, urtebete lehenago erregistraturiko kopurua baino puntu erdi gehiago, batez bestekoaren historikoaren gainetik, eta egungo zikloaren gehienekoa izateraino. Aldeko faktoreen artean, Europako ekonomiaren susperraldia, Japoniako ekonomiaren indarraren sendotzea, eta Txina eta Indiaren ezin geldituzko indarra aipatu behar dira. Estatu Batuetako hazkundera garrantzitsua izan da, nahiz eta jardunaldiaren azken partean moteldu. Onuradun nagusia **munduko merkataritza** izan da. Trukeak %9,6an gehitu dira.

2006ko ekitaldian arriskuak garrantzitsuak eta gero eta handiagoak izan dira. Munduko ekonomiaren dinamismoa eta zenbait tirabira geopolitiko direla medio, petrolioaren prezioak gora egiten jarraitu du 2006ko lehen sei hilekoan. Hala ere, abuztutik aurrera bilakaera hori moderatu egin zen. Ardura nagusia higiezinaren inflazioa izan da, etxebizitzaren merkatuaren zuzenketa eragin baitu, eta 2007ra begira ekonomiaren hazkunde-ahalmena moderatu du. Arrisku horiei, metaturiko desoreken zuzenketa eza erantsi zaie: kontu korronteko desorekak bereziki, defizitakoa Amerikako kasuan, eta irabazi gero eta handiagoak Japonian eta Txinan.

Munduko dinamismoak, finantzaketa-baldintza mesedegarriek eta enpresen irabazi handiek **burtsa-merkatuak** sustatu dituzte. Alabaina, urteak aurrera egin ahala, finantza-merkatuen lurrunkortasunak gora egin du, harik eta 2007ko lehen hiruhilekoan zuzenketa bat izan duen arte. Dibisen merkatuetan, dolarrak atzera egin du, batez ere euroaren ondoan. Yenak balioa galtzen jarraitu du, eta Txinako diruak berriz truke-kontrolako egoera artifizial batean jarraitu du.

Bai Estatu Batuetan, bai Japonian eta euroaren eremuan, nabarmen moderatu dute defizit publikoa. **Diru-politika**, bere aldetik, zurrundu egin da. Estatu Batuetan diru-baldintzak gogortu egin ziren, batez ere urtearen lehen partean. Alderantzizko jokamoldea izan du Europako Banku Zentralak, hark igo egin baititu tasak, urtea %3,5ean den bukatu arte. Japonian bukatu da zero tasako aldia. Eta azaleratzen ari diren beste ekonomia batzuek bide berari jarraitu diote: Txinak, Turkiak, Indiak.

*La expansión de la **economía mundial** se ha fortalecido en 2006 hasta alcanzar un 5,4%, medio punto más que el registrado un año antes, por encima de la media histórica y el máximo del ciclo actual. Entre los apoyos surgieron la recuperación de la economía europea, la consolidación del impulso de la economía nipona y el vigor imparable de China e India. Estados Unidos mantuvo un crecimiento importante aunque ralentizado en la última parte del ejercicio. El principal beneficiario ha sido el **comercio mundial**. Los intercambios se han incrementado en el 9,6%.*

Los riesgos durante el ejercicio 2006 han sido importantes y crecientes. El dinamismo de la economía mundial y ciertas tensiones geopolíticas han continuado espoleando la escalada del precio del crudo durante el primer semestre de 2006. Sin embargo, a partir del mes de agosto esta evolución se moderó. La principal preocupación ha sido la inflación inmobiliaria, que ha provocado una corrección del mercado de la vivienda y ha moderado la capacidad de crecimiento de la economía de cara a 2007. A estos riesgos, se ha unido la falta de corrección de los desequilibrios acumulados: especialmente los de cuenta corriente, de déficit, en el caso americano, y de creciente superávit, en Japón y China.

*Los **mercados bursátiles** han sido espoleados por el dinamismo mundial, las favorables condiciones de financiación y los holgados beneficios empresariales. Sin embargo, conforme avanzaba el año, la volatilidad de los mercados financieros fue aumentando hasta sufrir una corrección en el primer trimestre de 2007. En el mercado de divisas, el dólar ha perdido terreno, sobre todo, frente al euro. El yen ha seguido depreciándose, mientras que la moneda china ha continuado manteniendo una situación artificial del control cambiario.*

*Tanto Estados Unidos como Japón o la zona euro han moderado de manera importante su déficit público. La **política monetaria**, por su parte, se ha tornado más rígida. En Estados Unidos el endurecimiento de las condiciones monetarias se concentró en la primera parte del año. Comportamiento inverso se ha registrado por parte del Banco Central Europeo, que ha incrementado los tipos hasta terminar el año en el 3,5%. Japón ha puesto fin a la etapa de tipos cero. Y otras economías emergentes han seguido estos movimientos: China, Turquía o India.*

(*) *Iruzkín honek, Bazkudearen Goi-Kontseiluaren "Informe Anual Económico 2006 lanean egindako azterketari jarritzen dio funtsean.*

(*) Este comentario sigue fundamentalmente el análisis efectuado en el "Informe Anual Económico 2006 del Consejo Superior de Cámaras

Munduko ekonomia nagusiak

EEBBtako ekonomiak hazkunde garrantzitsu batekin bukatu du 2006ko urtea (%3,3) baina desazelerazioko joerarekin. Arrisku handiko kredituen krisiak geldiarazi egin du amerikar higiezinaren merkatua, eta lurruntasun garrantzitsuak eragin ditu, bai burtsako merkatuetan, bai kreditu-merkatuetan. Enpresetan ere sumatu da joera hori, konfiantzak eta inbertsioek behera egin baitute. Familiek halako gastu maila bati eutsi diote, lanaren merkatuan aurkitu duten laguntzari esker. Kontu korronteko defizita areago hondatu da, harik eta BPGren 6,5%era iritsi den arte.

Europako ekonomiak, 2006ko urtea ixtean, espero zena baino jokamolde hobea zuen, nahiz eta arazo garrantzitsu batzuk sortu: lehengaien prezio altuak, petrolioaren prezioa bereziki, diru-baldintzen gogortzea eta amerikar ekonomiaren desazelerazioa ekitaldiaren azken partean. Hala, ekitaldi osorako, Europar Batasunak %2,9ko bultzada izan du, eta euro eremuan berriz 2006ko ekitaldia %2,8ko hazkunde batekin bukatu da, hau da, azken sei ekitalditako daturik hoberenarekin.

Kontsumoak sendo jarraitu du, baina inbertsioa izan da barneko eskariaren aurreramenduaren eragile nagusia, eta euroaren eremuko hazkundearen motorra. Kanpoko sektoreari dagokionez, asko lagundu diote nazioarteko merkatuen indarrak eta aleman ekonomiaren susperraldiak.

Europako Banku Zentralak, inflazioaren presioaren ondorioz, gogortu egin du diru-politika. Inflazioaren batez besteko tasa euroaren eremuan ez da aldatu, eta %2,2an jarraitu du. Euroaren eremuko zerga-politikak, aurreneko aldiz urte askoan, hobekuntza nabarmena izan du bere sendotze-prozesuan. Defizit publikoa BPGren %1,6 arte moderatu da.

Japoniako ekonomiak 2006an %2,2rainoko azelerazioa izan du. Barneko eskariaren susperraldia, bai enpresen ikuspegitik, bai familien ikuspegitik, indartuz joan da. Japoniako diru-agintariek 2001eko martxoaz geroztik ezarria zegoen zero tasako aldia bukatzea erabaki dute.

Asiako ekonomiek, 2006an, azken 11 urteotako hazkunderik handiena izan dute: %8,3. Asiako erraldoiek, Txinak eta Indiak, eskualdeko hazkunde osoaren %70 izan dute. Hala eta guztiz ere, herrialde batean zein bestean ekonomiaren hazkundera desoreka eta desberdintasun handiekin batera ari dira gertatzen, eta zuzendu egin behar dira.

Latindar Amerikak indar handia izan du 2006an; izan ere, 2004-2006 urte-bitartea izan da, hirurogeita hamarretatik, eskualde honetako hazkunderik handienekoa. Ekitaldi honetan %5,5eko hazkunde bat izan da, 2005ekoan baino puntu bat gehiago, eta hobekuntza garrantzitsuak izan dira gainera alor askotan. Ekonomia

Principales economías mundiales

La economía de EEUU ha terminado el 2006 con un importante crecimiento del 3,3%, pero con una trayectoria de desaceleración. La crisis de los créditos de alto riesgo ha paralizado el mercado inmobiliario americano y ha generado importantes volatilidades tanto en los mercados bursátiles como en los crediticios. Las empresas han reflejado una caída de su confianza y de las inversiones. Las familias mantuvieron cierto nivel de gasto gracias al apoyo encontrado en el mercado laboral. El déficit por cuenta corriente ha sufrido un deterioro adicional hasta llegar a representar un 6,5% del PIB.

La economía europea ha cerrado 2006 con un comportamiento mejor de lo esperado, a pesar de algunos importantes problemas surgidos: los altos precios de las materias primas, especialmente del crudo, el endurecimiento de las condiciones monetarias y la desaceleración de la economía americana en la última parte del ejercicio. Así para el conjunto del ejercicio la Unión Europea ha anotado un impulso del 2,9%, mientras que la zona euro ha cerrado 2006 con un crecimiento del 2,8%, el mejor dato en los últimos seis ejercicios.

Mientras el consumo ha mantenido su fortaleza, ha sido la inversión el principal factor causante del avance de la demanda interna, motor del crecimiento de la zona euro. Respecto al sector exterior, se ha visto favorecido por la fortaleza de los mercados internacionales y la recuperación de la economía alemana.

Las presiones inflacionistas han llevado al Banco Central Europeo a endurecer su política monetaria. La tasa media de inflación en la zona euro se ha mantenido en el 2,2%. La política fiscal de la zona euro ha registrado, por primera vez en años, una mejora significativa en su consolidación. El déficit público se ha moderado hasta el 1,6% del PIB.

La economía japonesa en 2006 ha registrado una aceleración del PIB hasta el 2,2%. La recuperación de la demanda interna, tanto desde el punto de vista de las empresas como de las familias, han ido ganando impulso. La autoridad monetaria japonesa ha decidido a poner fin a su etapa de tipos cero, que comenzó en marzo de 2001.

Las economías asiáticas han experimentado en 2006 el mayor crecimiento en los últimos 11 años: el 8,3%. Los gigantes asiáticos, China e India, han aportado el 70% del crecimiento económico de la región. No obstante, en ambos países el crecimiento económico coexiste con importantes desequilibrios y desigualdades que deben corregirse.

Iberoamérica ha mantenido en 2006 un impulso muy notable; de hecho el periodo de 2004-2006 ha sido el de mayor crecimiento de la zona desde los años setenta. En el ejercicio se ha registrado un crecimiento del 5,5%, un punto por encima del de 2005, y con mejoras significativas en muchos frentes. La inflación se ha

nagusietan inflazioa moderatu egin da, kontu publikoak finkatu egin dira, eta aurrerapausoak eman dira pobretasunaren eta desberdintasunen borrokan; horiexek dira urte onuragarri baten adierazle nagusietako batzuk. Lehengaien prezio egokiak, finantziario-baldintza oraindik positiboak, mundu osoko bultzada guztiz indartsua, eta Asiako herrialdeekiko harreman gero eta hobeak izan dira joera hau tankeratu duten faktoreak.

2007rako iragarpenak

Munduko ekonomiak %5aren inguruko dinamismoa izango du 2007ko ekitaldian, lehen hiruhilekoan erregistratu den finantza-zuzenketengatik eta oraindik ere bai finantza-esparruan, bai errealean, dauden arrisku altuengatik ere. Ekonomia garatueta hazkundearen motorra aldatu egingo dela izango da berrikuntza nagusia. Amerikar ekonomia Europakoa baino gutxiago haziko da (2001az gero ez zen halakorik gertatzen), eta baita Japoniakoa baino gutxiago ere, 1991z gero gertatzen ez zen gauza. Azaleratzen ari diren ekonomien artean, dinamismo-guneak lehenengo berberak izango dira: Txinako eta Indiako ekonomiak.

Munduko ekonomiarentzat espero den dinamismo handia, ordea, moderatu egin daiteke desoreken metaketaren (kontu korronteko eta dibisen desorekak dira batez ere) eta arrisku geopolitikoaren ondorioz, eta horrek guztiak lehengaien prezioetan, batez ere petrolioarenean, izan dezakeen eraginaren ondorioz.

Estatu Batuetan, etxebizitzaren merkatuaren zuzenketak eta azken garaiotan pilatu diren arrisku handiek (defizit bikoitza) izango dute ondorioz amerikar hazkundean 2007ko ekitaldian, % 2,1 arte moderatuko baita. Alabaina, pixkana-pixkana ekonomiak tonu positiboa berreskuratuko du. Arrisku nagusia EEBBtako higiezinaren merkatuaren zuzenketa handiago bat izan daiteke, baldin kontsumora eta barne inbertsiora igarotzen bada eta munduko hazkundera kutsatzen badu. Hala eta guztiz ere, ekonomiako agintariek desorekak modu eraginkorrean kudeatuko dituztela espero da.

Euroaren eremuko ekonomiak 2007an izango duen hazkundera aurreko urtekoa baino moderatuxeagoa izango da, baina beti ere potentzialaren gainekoa. Moderazio horren atzean, diru-baldintza gogorragoak, euroaren balioa handitzea eta zerga-politika zorrotzago bat daude. Hazkunde-tasa %2,7koa izatea espero da, 2000. urteaz geroztik gertatzen ez zen gauza. Frantzia eta Alemanian bultzada sendotu izana, Irlanda, Espainia eta Greziaren indar handia, eta Esloveniako ekonomia indartsua direla-eta, horren guztiaren ondorioz, 2007 eta 2008 oso urte dinamikoak izan daitezke euroaren eremuarentzat, eta lanaren merkatuak onura handiak izaten jarraituko du. Prezioen ikuspegitik, itxaropenek KPI Harmonizatua urtearen osotasunean %2aren ingurukoa izango dela adierazten dute.

Japoniak 2007an, krisiko hamarraldi luze baten ondoren, bere bideari jarraituko dio, berriz ere munduko bigarren ekonomia izateko ahaleginean. Hazkundeari eutsiko dio, eta agian 2006koa baino handixeagoa izango da. %2,4ko bultzada bat espero da, barne eskariak eta

moderado en las principales economías, la consolidación de las cuentas públicas y los avances en la reducción de la pobreza y las desigualdades han sido algunos de los exponentes de un año muy favorable.. Unos favorables precios de las materias primas, unas condiciones todavía positivas de financiación, un impulso mundial muy robusto y una relación cada vez más privilegiada con los países asiáticos han configurado esta trayectoria.

Previsiones 2007

La economía mundial mantendrá un dinamismo cercano al 5% durante el ejercicio 2007, a pesar de la corrección financiera registrada a finales de primer trimestre y de los elevados riesgos todavía existentes tanto en el ámbito financiero como real. La principal novedad será el cambio en el motor de crecimiento entre las economías desarrolladas. La economía americana crecerá menos que la europea (no ocurría desde 2001) e incluso que la japonesa, situación que no se daba desde 1991. Entre las economías emergentes los focos de dinamismo seguirán siendo los mismos: las economías asiáticas de China e India.

El fuerte dinamismo esperado para la economía mundial podría, sin embargo, moderarse ante las consecuencias derivadas de la acumulación de desequilibrios (principalmente de cuenta corriente y divisas), los riesgos geopolíticos y su influencia en los precios de las materias primas, especialmente del crudo.

La corrección del mercado de la vivienda en Estados Unidos y los elevados riesgos acumulados en los últimos tiempos (doble déficit) pasarán factura al crecimiento americano durante el ejercicio 2007, que se moderará hasta el 2,1%. No obstante, la economía irá recuperando el tono positivo. El principal riesgo sería una mayor corrección en los mercados inmobiliarios de EEUU que se traslade al consumo y a la inversión interna y que contagie al crecimiento mundial. No obstante, se espera una gestión eficaz de los desequilibrios por parte de las autoridades económicas

La economía de la zona euro mantendrá en 2007 un crecimiento, ligeramente más moderado que el año precedente, pero por encima del potencial. El endurecimiento de las condiciones monetarias, la apreciación del euro y una política fiscal más restrictiva están detrás de esta moderación. Se espera una tasa de crecimiento del 2,7%, situación que no se registraba desde el año 2000. La consolidación del impulso en Francia y Alemania y el fuerte vigor de Irlanda, España y Grecia; junto con la incorporación de una potente economía eslovena, perfilan un 2007 y 2008 muy dinámicos para la zona euro, en los que el mercado laboral seguirá resultando fuertemente beneficiado. Desde el punto de vista de los precios, las expectativas, reflejan que el IPC Armonizado se mantendrá en el conjunto del año en el entorno del 2%.

Japón seguirá en 2007 en su camino para recuperar su posición de segunda economía mundial tras más de una década de crisis. Mantendrá su crecimiento e incluso será ligeramente superior al de 2006. Se espera un impulso del 2,4%, en el que la demanda interna y el

kontsumo pribatuak gero eta indar handiagoa lortuko dutena. Diru-politikan ere aldaketak ari dira gertatzen, eta moderazio handiz ari da gogortzen, zero tasako hamarraldi baten ondoren.

Asiako ekonomiek hazkunde-tasa hobeak izango dituzte berriz ere, %9tik gertukoak. Bereziki garrantzitsua gertatzen da Txinako ekonomiaren kasua, bai barne garapeneko arazoetan, bai diruaren kotizazioan eta horrek esportazioetan eta munduko merkataritzan duen eraginean. Hala eta guztiz ere, %10,5aren gaineko hazkundera izango du berriz ere.

Latin Amerikari dagokionez, jokamolde egokiak bere horretan jarraituko dutela diote iragarpenek, nahiz eta 2006ko urtearekin alderatuz gero moteltzeko joera izan. Estatu Batuetako ekonomiaren desazelerazioa, finantzatze-baldintza zurrinagoak eta mundu osoan diren arriskuak daude panorama honen atzean. Batez beste, %4,9ko bultzada bat izango da, Argentina hazkunderaren liderra izango da (nahiz eta moderazio-ildo batekin), eta Txilek eta Brasilek berriz areago azeleratu dute beren indarra (hurrenez hurren, %5,2 eta %4,4 arte).

consumo privado adquieran cada vez más fortaleza. También la política monetaria está registrando cambios, endureciéndose muy moderadamente tras una década de tipos cero.

Las economías asiáticas mantendrán nuevamente las tasas de crecimiento más boyantes, cercanas al 9%. Especialmente relevante resulta el caso de la economía China tanto en sus problemas de desarrollo interno como en la cotización de su moneda y su influencia en sus exportaciones y el comercio mundial. No obstante, mantendrá un impulso superior al 10,5% nuevamente.

Las perspectivas para Iberoamérica reflejan el mantenimiento de un comportamiento muy favorable, aunque con tendencia de ralentización con respecto a 2006. La desaceleración de la economía de Estados Unidos, una mayor rigidez de las condiciones de financiación y los riesgos existentes en el entorno mundial están detrás de este panorama. Como media se registrará un impulso del 4,9%, en el que Argentina volverá a ser líder de crecimiento (aunque con una senda de moderación), mientras que Chile y Brasil acelerarán su impulso (hasta el 5,2% y el 4,4% respectivamente).

PROIEKZIOEN LABURPENA/RESUMEN DE PROYECCIONES
URTEKO TASA DESESTAZIONALIZATUAK/TASAS ANUALES DESESTACIONALIZADAS

	2004	2005	2006	2007	2008
Aldakuntzaren portzentaia aurreko urtearen aldean/Porcentaje de variación sobre el periodo anterior					
BPG, balio errealean/PIB en valor real					
Estatu Batuak/EEUU	3,9	3,2	3,3	2,1	2,5
Japón	2,7	1,9	2,2	2,4	2,1
Euro zona/Zona Euro	1,8	1,5	2,8	2,7	2,3
OCDE Guztira/ Total OCDE	3,2	2,6	3,2	2,7	2,7
Barne eskaria balio errealean/Demanda interior en valor real					
Estatu Batuak/EEUU	4,4	3,3	3,2	1,7	2,4
Japón	1,9	1,7	1,4	1,7	1,5
Euro zona/Zona Euro	1,7	1,8	2,6	2,5	2,3
OCDE Guztira/ Total OCDE	3,4	2,8	3,0	2,4	2,5
Inflazioa (BPGren prezio-indizea)/Inflación (índice de precios implícito del PIB)					
Estatu Batuak/EEUU	2,8	3,0	2,9	2,6	2,2
Japón	-1,1	-1,3	-0,9	-0,4	0,2
Euro zona/Zona Euro	1,9	1,9	1,7	2,0	2,0
OCDE Guztira/ Total OCDE	2,4	2,2	2,2	2,1	2,0
Biztanleriak aktiboaren portzentaian/En porcentaje de población activa					
Langabezia/Paro					
Estatu Batuak/EEUU	5,5	5,1	4,6	4,6	4,8
Japón	4,7	4,4	4,1	3,8	3,6
Euro zona/Zona Euro	8,8	8,5	7,8	7,1	6,7
OCDE Guztira/ Total OCDE	6,7	6,5	5,9	5,6	5,5
BPGren portzentaian/En porcentaje de PIB					
Kontu korrontezko balantza/Balanza por cuenta corriente					
Estatu Batuak/EEUU	-5,7	-6,4	-6,5	-6,1	-6,2
Japón	3,7	3,7	3,9	4,8	5,4
Euro zona/Zona Euro	1,1	0,3	0,1	0,4	0,4
OCDE Guztira/ Total OCDE	-1,1	-1,6	-1,9	-1,5	-1,5
%					
Epe laburreko interes tasa/Tasa de intereses a corto plazo					
Estatu Batuak/EEUU	1,6	3,5	5,2	5,3	5,0
Japón	0,0	0,0	0,2	0,5	0,6
Euro zona/Zona Euro	2,1	2,2	3,1	4,1	4,0
Aldakuntzaren portzentaia aurreko urtearen aldean/Porcentaje de variación sobre el periodo anterior					
Munduko merkataritza/ Comercio mundial					
	9,5	7,5	9,6	7,5	8,3

Iturria: "Perspectives Economiques de L'OCDE". 2007ko Maiatza./Fuente: "Perspectives Economiques de L'OCDE". Mayo 2007.

Espainiako ekonomiak **2006an** sendotu egin du bere hazkundera, %3,9ra iritsi arte. Datu honek adierazten duenez, azelerazioa 4 hamarrenkoa izan da 2005arekin alderaturik; urte hartan ekonomiak %3,5 egin zuen gora. Dinamismo handiago hori kanpoko eskariaren ekarpen negatibo txikiago batean oinarritu da, eta horrek orekatu egin du eskari nazionalaren osagaietan gertatu den moteltzea. Sektoreen arabera, aipagarriak dira industria-jardueran antzeman den gehikuntza eta eraikuntzaren indar iraunkorra, zeinak hazkunde ekonomikoaren oinarrietako bat izaten jarraitu baitu.

2006an, **eskari nazionalak** moteldu egin du BPGri egindako ekarpena, %4,9 arte. Urtebete lehenago ekarpen hori %5,2koa izan zen.

Etxeetako kontsumoan izan du agian eraginik interes-tasek 2006an zehar izan duten goranzko joerak, eta, era horretan, urtebete lehenago baino erritmo motelagoaz hazi da (%3,7ko hazkundera 2006an, 2005ean hazkundera %4,2 zenean). Nolanahi ere, familien kontsumoaren denborazko bilakaera urtearen osotasunean oso egonkorra izan da.

Administrazio Publikoen kontsumoa ere 2005ean izandako tasetan baino tasa murrizagoetan hazi da. 2006ko gehikuntza (%4,4) txikiagoa izan da, lau hamarren portzentualekoa, urtebete lehenago izan zena baino, nahiz eta 2006ko azken hiruhilekoan azelerazio nabarmena izan, harik eta %4,9an kokatu zen arte.

Aurten berriz ere, **inbertsioa** gertatu da eskari nazionalaren osagairik dinamikoena, %6,3ko hazkundera izan baitu 2006an. Kapital finkoaren eraketa gordinak ere ez dio itzuri egin eskari nazionalaren osagaietan gertatu den desazelerazio orokorrari.

Ekipo-ondasunetako kapital finkoaren eraketa gordina indarberritu egin da. Ekipo-ondasunetako inbertsioaren urteko hazkundera %9,7 izan da, joan den urteko %9,0aren gainetik. Horrez gainera, urteak aurrera egin ahala, hazi egin da inbertsio-ahalmena.

La economía española ha reforzado su crecimiento hasta el 3,9% en 2006. Este dato representa una aceleración de 4 décimas respecto al logrado en 2005, año en el que la economía avanzó un 3,5%. El mayor dinamismo se ha fundamentado en una menor contribución negativa de la demanda externa, que ha compensado la ralentización que se ha producido en los componentes de la demanda nacional. Por sectores cabe destacar el incremento observado en la actividad industrial y el vigor sostenido de la construcción, que se ha mantenido como uno de los pilares del crecimiento económico.

*En 2006, la **demanda nacional** ha atenuado su contribución al crecimiento del PIB hasta el 4,9%. Un año antes esta contribución se situó en el 5,2%.*

*El **consumo de los hogares** ha podido verse afectado por la tendencia al alza que han seguido los tipos de interés a lo largo de 2006 y ha avanzado a menor ritmo que un año antes (3,7% en 2006 frente a 4,2% en 2005). De cualquier forma, la evolución temporal del consumo de las familias en el conjunto del año se ha mantenido muy estable.*

*El **consumo de las AAPP** también ha crecido a tasas más reducidas que las registradas en 2005. El 4,4% de incremento en 2006 ha sido inferior en cuatro décimas porcentuales al registrado un año antes, aunque en el último trimestre de 2006 experimentó una aceleración considerable, hasta situarse en el 4,9%.*

*Un año más, la **inversión** se ha afianzado como el componente más dinámico de la demanda nacional, con un crecimiento en 2006 del 6,3%. La formación bruta de capital fijo tampoco ha escapado a la desaceleración generalizada que se ha producido en los componentes de la demanda nacional.*

La formación bruta de capital en bienes de equipo ha experimentado un nuevo impulso. El crecimiento anual de la inversión en bienes de equipo ha sido del 9,7%, por encima del 9,0% del año anterior. Además, se produjo un incremento de la intensidad inversora conforme avanzaba el año.

(*)Iruzkin honek, Bazkundearen Goi-Kontseiluaren "Informe Anual Económico 2006" lanean egindako azterketari jarritzen dio funtsean.

(*)Este comentario sigue fundamentalmente el análisis efectuado en el "Informe Anual Económico 2006" del Consejo Superior de Cámaras.

2006an eraikuntzako inbertsioa aurreko urteko erritmo bertsuan hazi da, %5,9, 2005ean erritmo hori %6,0 zenean. Beste produktuen inbertsioaren ondorioz gertatu da kapital finkoaren eraketa gordinaren hazkunde global txikiagoa. Eskari nazionalak hazkunderari egin dion ekarpen txikiago hori konpentsatua gertatu da **kanpoko eskariaren** ekarpen ez horren negatibo batekin. 2006an, kanpoko eskariak NPGren hazkunderari egin dion ekarpena -1 puntu portzentualekoa izan da, aurreko urtean -1,7 puntu zirenean. 2005 oso urte motela izan zen esportazioetan (%1,5), baina 2006aren bukaeran nabarmen hazi dira kanpoko salmentak; hazkunde hori Europako ekonomiaren susperraldiarekin batera gertatu da. Kanpoko salmenten aurreramenak %6,2 izan da (4,7 puntu portzentualeko diferentzia). Inportazioetan ere azelerazioa izan da, esportazioetan gertatu dena baino txikiagoa ordea, 2006ko hazkundera %8,4koa izan baita, hau da, 2005ean izan zena baino 1,4 puntu portzentual gehiago.

Sektoreen arabera, aipatzekoa da **industriaren** gertatu den susperraldia, zeina, 2005ean hazkunde ia hutsa izatetik (%0,3), 2006an %3 haztera igaro baita. Aurreramenak hori bereziki handia izan da urtearen azken partean, sektorea aldi horretan %4aren gainetik hazi baita. Bultzadarik handiena kanpora zabalduek dauden industriaren alorrek eman dute, eta ekipo-ondasunen horniduran diharduten jarduerak.

Eraikuntza izan da orain ere ekonomiaren sektorerik dinamikoena, eta 2005. urteko erritmo bertsuan hazi da (%5,3 2006an, 2005ean %5,4 zenean).

Azkenik, **zerbitzuetan** ere moderazio bat izan da aurreramen-tasan, eta, hala, 2006an %3,6ko hazkundera izan dute, hau da, 2005ean erregistratu zen %4,4aren azpikoa. Hazkunde txikiago hori merkatuko zerbitzuen ondoriozkoa izan da huts-hutsik, haietan argi antzeman baitaio etxeko kontsumoetan gertatu den moteltzeari.

Lan-merkatuan ere sumatu da Espainiako ekonomiaren hazkundera, baina ez ordea produktibitatean. 2006 itxi zenean, langabezia-tasa %8,3 zen, hau da, 2005ekoa baino 0,4 hamarren txikiagoa. BJAk eman dituen datuak kontuan hartuz gero, 2006an biztanleria aktiboa %3,1 hazi zen, baina langabetuen kopurua %3,6ra heldu zen.

Eraikuntza izan da berriz ere enpleguaren sorrerari dagokionez sektore nagusia, eta 2005eko erritmoa ere azeleratu da. Eraikuntzaren sektorean okupaturik dauden langileen kopurua, lanaldi oso lanpostuetan neuriturik, batez beste %7,5 hazi da 2006an, zerbitzuen sektorean izan den okupatuaren hazkunderaren oso gainetik, %3,4, eta berebat industriako egonkortasunaren oso gainetik. Eraikuntzako enpleguaren aurreramenak garrantzitsu horrek eragin negatiboa izan du lan-faktorearen itxurazko produktibitatean. Sektoreko okupaturiko BEG %2,1 murriztu da. Aitzitik, jarduera industrialaren susperraldiak, kapitala gehiago erabiltzen duen sektore bat izanik, ez ditu enplegu-tasa handiagoak ekarri, eta, horren ondorioz, produktibitateak aurreramenak nabarmen bat izan du, %3,3. Bestalde,

*En 2006 la inversión en construcción ha crecido prácticamente al mismo ritmo que el año previo, 5,9% frente al 6,0% de 2005. Ha sido la inversión en otros productos la que ha provocado un menor crecimiento global de la formación bruta de capital fijo. El menor aporte al crecimiento de la demanda nacional ha sido compensado por una aportación no tan negativa de la **demanda externa**. En 2006 esta contribución al crecimiento del PIB ha sido de -1 punto porcentual, cuando el año anterior se situó en -1,7 puntos. Tras un apático año 2005 en lo que a exportaciones se refiere (1,5%), 2006 ha concluido con una notable aceleración de las ventas al exterior, coincidiendo con la recuperación de la economía europea. El avance de las ventas externas ha sido del 6,2% (4,7 puntos porcentuales de diferencia). Las importaciones también han experimentado una aceleración, aunque de menor magnitud que las exportaciones, ya que el crecimiento en 2006 ha sido del 8,4%, superior en 1,4 puntos porcentuales al registrado en 2005.*

*Por sectores, cabe destacar la recuperación que se ha producido en la **industria**, que ha pasado de un crecimiento casi nulo en 2005 (0,3%), a crecer un 3,3% en 2006. Este avance ha sido especialmente intenso en la última parte del año, cuando el sector creció por encima del 4%. Sobre todo, el impulso ha venido dado desde las ramas industriales más abiertas al exterior y desde las actividades destinadas al suministro de bienes de equipo.*

*La **construcción** se ha mantenido como el sector más dinámico de la economía, creciendo prácticamente al mismo ritmo que en 2005 (5,3% en 2006 frente a 5,4% en 2005).*

*Por último, los **servicios** también han registrado una moderación en su tasa de avance, alcanzando en 2006 un crecimiento del 3,6%, inferior al 4,4% registrado en 2005. Este menor crecimiento ha sido debido exclusivamente a los servicios de mercado, que han notado la ralentización que se ha producido en el consumo de los hogares.*

*El **mercado de trabajo** ha continuado beneficiándose del crecimiento de la economía española, no tanto la productividad. 2006 cerró con una tasa de paro del 8,3%, 0,4 décimas inferior a la de 2005. Según datos de la EPA, mientras 2006 cerró con un incremento de la población activa del 3,1%, el número de ocupados aumentó un 3,6%.*

De nuevo ha sido la construcción el sector líder en la creación de empleo, acelerando, incluso, el ritmo de 2005. El número de ocupados en el sector constructor, en términos de puestos de trabajo equivalente a tiempo completo, ha crecido un 7,5% de media en 2006, muy superior al crecimiento de los ocupados del sector servicios, 3,4%, o la estabilidad de industrial. Este importante avance del empleo en la construcción ha tenido una repercusión negativa en la productividad aparente del factor trabajo. El VAB por ocupado del sector se ha reducido un 2,1%. Por el contrario, la recuperación de la actividad industrial, un sector más intensivo en la utilización del capital, no fue acompañada por mayores tasas de empleo, con lo que la productividad ha experimentado un notable avance del 3,3%. Por su

zerbitzuen sektorearen produktibitateak bere horretan jarraitu du, eta %0,1 besterik ez da hazi.

2006an zehar, **prezioek** petrolioaren kostuaren bilakaera islatu dute. Inflazioa, urtea bukatzean, %2,7 zen, 2005aren bukaerakoa baino askoz ere baxuagoa (%3,7). Irailetik aurrera, petrolioaren prezioak beheraka egin zuen, eta hori KPIn islatu zen. Urteko azken hiru hilabeteetan prezioak ez ziren %3aren gainerik hazi. Egoera horren ondorioz, inflazio-diferentziala euroaren eremuari buruz, urtearen bukaeran, puntu portzentual batetik azpikoa izan zen.

Azpian dagoen inflazioa ere jaitsi egin da 2006an. Adierazlea %2,5era iritsi da, eta 2005 ixtean %2,9koa zen. Joera horrek esan nahi du petrolioaren prezioaren goraldi metatua ez dela ekonomiaren beste sektoreetara igaro.

Bigarren urtez segidan, 2006an **sektore publikoak** irabazia izan du bere kontuetan, BPGren %1,8. 2005ean irabazia BPGren %1,1era heldu zen. Kontsumoaren eta lan-merkatuaren dinamismoa dela medio, zerga-bilketa %10,7 hazi da, eta gastu publikoa berriz %8,4 handitu da. Bilketa handiago hori zerga zuzenetan, PFEZ eta elkarteetan oinarritu da; azken hori enpresen emaitzen bilakaera onaren ondoriozkoa izan da.

2007. urtean sendotu egingo da Espainiako ekonomiaren hazkundearen ereduaren aldaketa: barne kontsumoaren eta eraikuntzaren bultzada txikiagoa izango da, kanpoko eskariaren ekarpena ez horren negatiboa eta industriaren dinamismoa handiagoa. Egoera berri horrek ondorioak izango ditu enpleguaren hazkundera, zeren industriaren sektorean lanpostuen sorrera eraikuntzan edo zerbitzuen sektorean baino txikiagoa izaten baita, bataz zein besteak industriak baino langile-premia handiagoa dutelarik.

Eskari nazionalak BPGri egingo dion ekarpena txikiagoa izango da, aurrez ikusten baita etxeetako kontsumoak hazkundera moderatzen jarraituko duela. Europako Banku Zentralak interes-tasetan aurrez ikusten dituen goraldi berrien eta enpleguaren indar txikiagoaren ondorioz, familien eskaria apur bat desazeleratuko da, 2006an erregistratu zenarekin alderatuta. Eraikuntzako inbertsioa, bestalde, orobat gertatuko da moteldua sektorearen jardura motelagoaren ondorioz. Ekipoko ondasunetako inbertsioa sendotu egingo da eskari nazionalako osagai dinamikoaren gisa, nahiz eta izan dezakeen hazkundera ez den aski izango eskaria osatzen duten gainerako osagaien dinamismoaren galera konpentsatzeko.

Kanpoko eskariari dagokionez, Europako ekonomia nagusietan gertatzen ari den susperraldiak esportazioen hazkundera eutsiko dio, eta etxeetako kontsumoaren jardura txikiagoak inportazioen hazkundera geldiaraziko du. Alabaina, azken horien bultzada kanpoko salmentena baino handiagoa izango da oraindik ere, eta horrekin kanpoko eskariak hazkunderaren ekarpen negatiboki eutsiko dio. Hala eta guztiz ere, ekarpen hori 2006an erregistratu zena baino apalagoa izan

parte, la productividad del sector servicios ha permanecido estancada, creciendo sólo un 0,1%.

*A lo largo de 2006, los **precios** han reflejado la evolución del coste del petróleo. La inflación cerró el año en el 2,7%, muy por debajo de la cifra con la que finalizó 2005, 3,7%. A partir de septiembre el precio del crudo registró un ajuste significativo a la baja que se reflejó en el IPC. En los 3 últimos meses del año los precios no crecieron por encima del 3%. Esta situación permitió que el diferencial de inflación respecto a la zona euro acabara el año por debajo del punto porcentual.*

La inflación subyacente también se ha moderado en 2006. El índice se ha situado en el 2,5%, cuando al cierre de 2005 alcanzó el 2,9%. Esta tendencia es síntoma de que el alza acumulada del precio del petróleo no se ha trasladado a otros sectores de la economía.

*Por segundo año consecutivo, en 2006 el **sector público** ha registrado superávit en sus cuentas, del 1,8% del PIB. En 2005 el superávit llegó al 1,1% del PIB. El dinamismo del consumo y del mercado de trabajo ha propiciado que la recaudación tributaria aumentara un 10,7%, mientras que el gasto público se ha incrementado un 8,4%. La mayor recaudación se ha basado en los impuestos directos, IRPF y sociedades, éste último impulsado por la buena marcha de los resultados empresariales.*

*Durante el **año 2007** se consolidará el cambio en el patrón de crecimiento de la economía española: menor empuje del consumo interno y de la construcción, una aportación menos negativa de la demanda externa y mayor dinamismo de la industria. Esta nueva escena tendrá efectos en el crecimiento del empleo, porque la creación de puestos de trabajo por parte del sector industrial es de menor intensidad que la que corresponde a la construcción o al sector servicios, más intensivos en la utilización de mano de obra.*

*La **demanda nacional** aportará menos crecimiento al PIB, ya que es previsible que el consumo de los hogares continúe moderando su crecimiento. Tanto las nuevas alzas previstas en los tipos de interés por parte del Banco Central Europeo, como un menor empuje del empleo, traerán como consecuencia una demanda de las familias ligeramente desacelerada respecto a la registrada en 2006. Por su parte, la inversión en construcción también se verá ralentizada ante la menor actividad del sector. La inversión en bienes de equipo se afianzará como el componente más dinámico de la demanda nacional, aunque el crecimiento que registre no será suficiente para compensar la pérdida de dinamismo del resto de variables que conforman la demanda.*

*Por lo que se refiere a la **demanda externa**, la recuperación que se está produciendo en las principales economías europeas sostendrá el crecimiento de las exportaciones, mientras que la menor actividad del consumo de los hogares contendrá el crecimiento de la importaciones. Sin embargo el empuje de estas últimas todavía será superior al de las ventas al exterior, con lo que la demanda externa prolongará su aportación negativa al crecimiento. No obstante, esta aportación podría ser inferior a la registrada en 2006, que fue del*

daiteke, orduan puntu portzentual bat izan baitzen.

